

SARRERA

Gure koadrilan, aspertuta geunden egun batean, ezer egiteko ez geneukala, negozio baten ideia izan genuen: gazteentzako zerbitzuak eskaintzea erabaki genuen, haien olgetarako. Gaur egun dagoen arazo nagusia da, nerabeek ez dutela ekintza nahikorik asteburuan egiteko.

Gure proiektuarekin guzti hori konpontzea nahi dugu, horretarako lokal bat alokatuko dugu zeinetan nerabeek denbora pasa ahal duten, herritik atera gabe.

Lokalean futbolina, billarra, ping-pong, eta air jockey mahaiak izango ditugu. Guzti hau inskripzioa ordaindu ostean dohainik izango da gure bezeroentzako, eta hauek parte hartuko dute antolatuko ditugun lehiaketan. Lehiaketa guztiek sari bat izango dute.

Honetaz gain, monitore espezializatu batzuen laguntzarekin irteerak ere antolatuko ditugu. (mendira, hondartzara, beste herrialdeetara). Irteera hauek ez dira dohainik izango monitore espezializatuak eta ekintzarako materiala ordaindu behar dugulako.

